

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LEZOKO UDALAREN 2013-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osokoak joan den uztailaren 28an aho batez onartu zuten Lezoko Udalaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldiari dagokiona.

Txostenak adierazi du Udalak zuzentasunez bete duela 2013ko ekitaldian zehar bertako ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz akatsak azaleratu diren Aurrekontuen eta Kontu Orokorraren edukietan (ez dituzte Oarsotek, SLren finantza egoerak barne hartzen, zeinetan Udalak % 51ko jabetza duen) eta aztertutako 4 kontratutan. 2013an onartutako zaborrak bildu eta kaleak garbitzeko kontratuak nabarmen eraldatu zuten hasierako esleipena, kontratuaren xedea desitxuratuaz. Futbol zelaia zaharberritu eta belar artifiziala jartzeko kontratuak publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidezko bi kontratutan esleitu ziren, prozedura ireki bidez lizitatu beharrean. Gainera, udal aretoak garbitzeko lizitazioa (2011n esleitutakoa eta 2013an indarrean zegoena), GAOn iragarri zen arren, ez zen ez EAOn, ez DOUEn argitara eman, nahitaezkoa izanik.

Fundazioaren **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk uste du alderdi esanguratsu guztietan Fundazioaren 2013ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dutela; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere; salbuespen dira sei kontularitzako doikuntza, diruzaintza geldikina 214 mila euroan murriztaraziko luketenak. Berebat, Osokoak 2009an ikastetxe bat 10 urtetan zehar urteko 100.000 euroren zenbatekoarekin diruz-laguntzeko hartutako konpromisoari dagozkion kontuetan informazio eza dagoela azpimarratu da eta 171.652 euroren OHZaren likidazioak daudela, Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean errekurritutakoak, zeinaren ebazpenak urteko kontuetan eragina izan dezakeen.

Udalaren **finantza egoerari** dagokionez, txostenak azpimarratu du aurrezki gordinak zein garbiak gora egin dutela, zergek eragindako diru-sarreraren (OHZ eta JEZ nagusiki) eta Udalak abiarazitako funtzionamendu-gastuak murrizteko politikaren ondorioz. Obrazati nagusia diru-laguntza bidez finantzatzeak (futbol zelaiaren zaharberritzea) aurrezki hori Diruzaintza Geldikineko saldoa gehitzeko baliatzea bideratu du.

Epaitegiak adierazi du gastu eta sarreren egiturari eusteak 2013ko ekitaldian izandako inbertsio maila parekoak finantzatzeko bide eman duela.

Gainera, txostenak ondorioztatu du Udalak 2013an aurrekontuaren egonkortasun eta zor publikoaren helburuak ez ezik, gastuaren araua ere bete duela.

## NOTA DE PRENSA DEL TVCP DEL INFORME DE FISCALIZACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE LEZO, 2013

---

El pasado 28 de julio el Pleno del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas ha aprobado por unanimidad el informe de fiscalización de la gestión económico-financiera del Ayuntamiento de Lezo correspondiente al ejercicio 2013.

El Informe concluye que el Ayuntamiento **ha cumplido razonablemente con la normativa legal** que regula su actividad económico-financiera durante el ejercicio 2013, si bien se han detectado deficiencias en el contenido de los Presupuestos y la Cuenta General, (no incluyen los estados financieros de Oarsotek, SL, de la que el Ayuntamiento posee el 51%) y en 4 de los contratos analizados. La modificación del contrato de recogida de basuras y limpieza viaria aprobada en 2013 alteró significativamente la adjudicación inicial, desnaturalizando el objeto del contrato. La remodelación del campo de fútbol y la instalación de hierba artificial se adjudicaron en dos contratos por procedimiento negociado sin publicidad, cuando debería haberse licitado por procedimiento abierto. Además, la licitación de la limpieza de los locales municipales (adjudicada en 2011 y en vigor en 2013), si bien fue anunciada en el BOG, no se publicó en el BOE ni en el DOUE, cuando era preceptivo hacerlo.

En relación con las **cuentas anuales**, el TVCP opina que expresan en todos los aspectos significativos la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera al 31 de diciembre de 2013 así como de los resultados de sus operaciones y de sus flujos de efectivo, excepto por 6 ajustes contables que harían disminuir el remanente de tesorería en 214 miles de euros. Asimismo, se destaca la falta de información en las cuentas del compromiso adquirido por el Pleno en 2009 de subvencionar con 100.000 euros anuales durante 10 años a un centro escolar, y la existencia de liquidaciones del IBI por 171.652 euros recurridas ante el Tribunal Económico Administrativo Foral cuya resolución podría afectar a las cuentas anuales.

En relación con **la situación financiera** del Ayuntamiento, el informe destaca el incremento experimentado tanto en el ahorro bruto como en el neto, debido al aumento en los ingresos por impuestos (IBI e IAE principalmente) y a la reducción de gastos de funcionamiento llevada a cabo por el Ayuntamiento. La financiación con subvenciones de la obra más importante (remodelación del campo de fútbol) ha permitido destinar este ahorro a aumentar el saldo del Remanente de Tesorería. El Tribunal concluye que

el mantenimiento de la estructura de gastos e ingresos permite financiar niveles de inversión similares a los del ejercicio 2013.

Además, el Informe concluye que el Ayuntamiento ha cumplido en 2013 con los objetivos de **estabilidad presupuestaria y deuda pública**, y con la **regla de gasto**.